

FAGOR HERRIGINTZA LANKIDETZA PROGRAMAREN OINARRIAK

2025



**Etorkizuna
hobetzeko
lanean**

SARRERA

Ondorengoak dira Fagor Herrigintza lankidetzaren programa arautzeko oinarriak. Programa hau Fagor Taldeko Gizarte Eraldaketa Batzordeak sustatzen du, eta, proiektuen aukeraketa prozesuan, Fagor Taldeko kooperatibetako pertsonak parte hartzen dute.

LEHENENGO KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. PROGRAMAREN XEDEA

Fagor Herrigintza programaren bitartez, komunitatetik sortutako ekimenak lagundu, eta beraiekin lankidetzan aritu nahi dugu, euskal gizartearen auto-eratzearen bidetik, Garapen Iraunkorrerako Helburuei erantzun propio eta berezitu bat ematea helburu duten proiektuak bultzatuz.

2. DIRU BALIABIDEAK

Programa hau Fagor Taldeko IPDK heziketa eta kooperatiba sustapenerako zein interes publikoko beste helburu batzuetarako funtsetatik finantzatzen da. Konkreteki, Sustapen Sozial eta Kooperatibo arloan, interkooperazio eta kooperatibak sustatzeko proiektuetarako eta, Banaketa Komunitario arloan, kooperatibek gizarte eraldaketarako proiektuetarako 2025ean adostu dituzten baliabideekin finantziatuko da.

3. ENTITATE ONURADUNAK

Euskal Herriaren garapena bultzatzen duten proiektuak lantzen dituzten erakundeak izango dira programa honen onuradunak. Halaber, kontuan hartuko dira, proiektuaren inpaktua Euskal Herritik kanpora izan arren, Euskal Herrian antolatu eta garatzen diren dinamikak.

3.1. Onuradun izateko betekizunak:

- Irabazi asmorik gabeko erakundea izatea. Ez dira kontuan hartuko enpresak, ez eta irabazi asmorik gabe erregistratuta dauden kooperatibak ere, baldin eta deialdi honetan aurkezten den proiektuarekin lotura duten zerbitzuak fakturatu egiten badituzte.
- Egoitza nagusia Euskal Herrian erregistratuta izatea.



BIGARREN KAPITULUA. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

1. PROIEKTUEK IZAN BEHARREKO EZAUGARRIAK

Proiektuek lotura izan beharko dute 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) eta, bereziki, Fagor 2030 estrategiarekin lerrokatuta dauden ondorengo helburuekin: ekoizpen eta kontsumo arduratsua (12. GIH), genero berdintasuna (5. GIH), klima babesteko ekintza (13. GIH), hiri eta komunitate iraunkorrak (11. GIH) eta helburuak lortzeko aliantzak (17. GIH).

Hiri eta komunitate iraunkorrak helburuarekin lotuta (11. GIH), bereziki, gizarte inklusioa, mugikortasuna eta euskal kulturarekin lotutako proiektuak balioztatuko dira. Kirol elkartearen kasuan, gizarte inklusioari lotutako proiektuak hartuko dira kontuan.

Urtero aurkeztu ahal izango da erakundea. Deialdi berean, proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu, baina, deialdi bakoitzean, erakunde bakoitzetik gehienez ere proiektu bat izango da diruz lagundua.

Dirulaguntza jaso duten proiektuen kasuan, berriro aurkeztu ahal izango dira hurrengo ediziotik aurrera, beti ere, bilakaeraren bat izan badute diru ekarpena jaso dutenetik. Urtero proiektu bera errepikatzen duten erakundearen kasuan, diru ekarpena jaso baldin badute, azkenekoz jaso zutenetik lau urtetara aurkeztu ahal izango da proiektua berriro. Bozketan fasera iritsi diren, baina dirulaguntza jaso ez duten proiektuen kasuan, gehienez ere, beste bi deialdi gehiagotan aurkeztu ahal izango da proiektu bera, guztira hiru deialditan, tartean dirulaguntza jaso ez badu.

Proiektua da diruz lagunduko dena, eta ez elkarlearen ohiko jardunbidea; horregatik, eskaerak proiektu konkretuen deskribapenean eta aurrekontuan oinarritu beharko dira, eta ez elkarlearen ohiko jardunari dagozkien.

Proiektu gisa ulertuko da hasi eta amaitu egiten den egitasmo bat. Ez dira onartuko elkarlearen ohiko jardura diren ekintza-multzoak.

2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Ondokoak dira kontuan hartuko diren gastuak eta mugak:

- Proiektuaren aurrekontu osoaren %80 finantzatzeko da, gehienez.
- Proiektuarekin zuzenean loturarik ez duten gastuak ez dira kontuan hartuko (adibidez, bidaia gastuak eta dietak).
- Pertsonal gastuak lagundu ahal izango dira, baina proiektua, lan profesionalaz gain, boluntariora lanaren bidez ere garatzeko dela bermatu beharko da.
- Dirulaguntza publiko zein pribatuek harago, erakundeak proiektua autofinantzatzeko bestelako ekimenak martxan izatea baloratuko da.
- Elkarlearen egitura gastuak (alokairua, argia, ura...) ez dira diruz lagunduko.

3. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hiru izango dira emango diren dirulaguntzak. Ondorengo hiru kategoria hauetako bakoitzetik bat:

- Lagunduko den lehenengo proiektuak 60.000 euro jasoko ditu.
- Lagunduko den bigarren proiektuak 40.000 euro jasoko ditu.
- Lagunduko den hirugarren proiektuak 20.000 euro jasoko ditu.

Elkarte bakoitzak aukeratu egin beharko du zein kategoriatara aurkezten duen bere proiektua, kontuan hartuta, gehienez ere, aurrekontu osoaren %80 izango dela diruz lagundu daitekeen kopurua.

Elkarte batek proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu, baina proiektu bera ezingo da hiru kategorietan aurkeztu.

4. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Administrazio publikoetatik finantzazioaren %80tik gorako laguntza jaso duten proiektuak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

HIRUGARREN KAPITULUA. PROZEDURA

1. DEIALDIA

Programa honetako dirulaguntzak jarraian arautzen den prozeduraren arabera emango dira. Programaren oinarriak uztailean jakinarazi zaizkie Fagorreko kooperatibetako kideei, eta, irailean, fagor.eus webgunean argitaratu dira, deialdia publiko eginez. Irailean irekiko da proiektuak aurkezteko epea.

2. PROIEKTUAK AURKEZTEA

a. Ondorengoak dira proiektuak aurkezteko jarraitu beharreko urratsak:

- Proiektuak aurkezteko azken eguna 2025eko irailaren 30a izango da.
- Proiektuak fagor.eus webguneko formularioaren bitartez aurkeztuko dira.

b. Formularioan aurkeztu beharreko informazioa:

- Erakundearen datuak:

Erakundearen izena, erakundearen identifikazio fiskala, harremanetan jartzeko pertsonaren izen-deiturak, nortasun agiria, helbidea, herria, posta-kodea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.

- Dirulaguntza eskaera txostena, ondorengo atal hauekin:
 1. Proiektuaren xedea eta deskribapena.
 2. Ekimenaren onuradunak zeintzuk diren.
 3. Garapen Iraunkorreko Helburuekin duen lotura.
 4. Proiektuaren kronograma. Deialdi honen laugarren kapituluan, onuradunen betebeharretan jasotzen den epealdia kontuan izanda.
 5. Antolaketan parte hartzen duen pertsona kopurua, langileak eta boluntarioak bereizita.
 6. Fagor Taldeko kooperatibetako kideek parte hartzen badute proiektuaren antolaketan, adierazi zenbat diren eta zein kooperatibetakoak.
 7. Aurrekontu osoa eta finantzazio plana. Finantzazio planean, proiekturako eskatutako beste dirulaguntza publiko eta pribatuen berri ere jaso beharko da.
- Proiektuaren txostenak ondorengo informazio osagarria jaso ahal izango du (aukerakoa):
 1. Erakundeak garatutako beste proiektuen erreferentziak eta lortutako emaitzak.
 2. Erakundeak indarrean dituen lankidetzak edo kolaborazioak.
 3. Erakundeak jaso dituen sariak edo aitortzak.

Eskaera prozesua euskaraz egin beharko da, eta dokumentazio guztia euskaraz, gutxienez, egon beharko da. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoari jarraituz, ez du hizkera sexistarik erabiliko, eta, gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, ez du erabilera estereotipaturik egingo.

d. Laguntza eskabideak zuzentzea

Eskabidea puntu guztietan behar bezala beteta ez badago edo aurreko artikuluan adierazitako dokumentazio guztia aurkezten ez bada, hamar egun naturaleko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Epe hori igarota, hala egin ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

3. PROIEKTUEN AUKERAKETA

a. Proiektua ebaluatzen irizpideak

IRIZPIDEAK	Neurtuko dena	Puntuazioa
Fagor 2030ekin lerrokatutako Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lotura.	Aurkezten den proiektuak Garapen Iraunkorreko Helburu hauetan duen eragin positiboa baloratuko da: 5-Genero Berdintasuna 11- Hiri eta komunitate iraunkorrak 12- Ekoizpen eta kontsumo arduratsua 13- Klimaren aldeko ekintza 17-Helburuak lortzeko aliantzak	-Kontsumo arduratsuan eragina (12.GIH): puntu 1 -Genero berdintasunean eragina (5.GIH): puntu 1 -Aldaketa klimatikoarengan eragina (13.GIH): puntu 1 -Gizarte inklusioan eragina (11. GIH): puntu 1 -Euskal Kulturaren eragina (11.GIH): puntu 1 -Mugikortasun jasangarria eragina (11.GIH): puntu 1 - Hainbat erakunderen artean aurkeztutako proiektua denean edo erakunde eskatzailea elkarte ezberdinek osatzen dutenean. (17. GIH): puntu 1 Guztira 7 puntu lortzeko aukera.
Proiektuaren eragin eremua	Aurkezten den proiektuak non izango duen inpaktua baloratuko da	- Eragina eskualde edo lurralde mailan: puntu 1 - Eragina Euskal Herriko mailan: 2 puntu - Eragina Euskal Herri mailan: 3 puntu Guztira 3 puntu lortzeko aukera.
Proiektuaren irismena	Aurkezten den proiektuak izango duen onuradun kopurua baloratuko da	-Pertsona gutxiengian eragina: puntu 1 -Pertsona kopuru ertainarengan eragina: 3 puntu -Pertsona askorengan eragina: 6 puntu -Kolektibo zaurgarriengan eragiten badu: puntu 1 + Guztira 7 puntu lortzeko aukera
Fagorreko pertsonen ekintzailatza	Aurkezten diren proiektuetan Fagorreko kide diren pertsonen parte hartzea baloratuko da. (Fagorren jubilatutako diren pertsonak Fagorreko kide kontsideratuko dira)	-Fagorreko koop. bateko pertsona 1-2 inplikaturak: puntu 1 -Fagorreko koop. bateko 3-5 pertsona bitartean inplikaturak: 2 puntu -Fagorreko koop. bateko 5 pertsona baino gehiago inplikaturak dauden proiektuak: 3 puntu -Inplikaturak dauden Fagorreko pertsonen taldeko kooperatiba desberdinetakoak badira: puntu 1 + Guztira 4 puntu lortzeko aukera



b. Epaimahaia

Aurkezten diren proiektu guztien artean, Fagor Taldeko Gizarte Eraldaketa Batzordeak egingo du lehenengo aukeraketa, urriko ohiko bileran. Aukeraketa hori egiteko irizpideak aurreko puntuan zehaztutakoak izango dira.

Fagor Taldeko Gizarte Eraldaketa Batzordeak egindako aukeraketaren ondoren, Lehendakarien Batzordearen azaroko bileran balioztatutako dira aukeratutako proiektuak, eta Fagor Taldeko kooperatiba guztietako bazkideek izango dute aukera bozka bidez proiektuak aukeratzeko, azaroaren 10etik 20ra.

Fagorreko bazkide ez aktiboek bozka eman ahal izango dute, baldin eta aurretik bozkatzeko eskaera egiten badute.

Bozketa horretan babes handiena lortzen duten hiru proiektuak aurkeztuko dira abenduan egingo den Fagorreko Lehendakarien Batzordean, eta bertan hartuko da azken erabakia, jasotako babesa aintzat hartuta, baina bozketaren emaitzaren ordena loteslea izan gabe.

Erakunde onuradunak aurkezturiko dokumentazioaren datuak egiazkoak direla frogatzeko, beharrezko jotzen den dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango da.

d. Jakinarazpenak eta alegazioak

Behin erabakia hartuta, Lehendakarien Batzordeak ebazpena Fagor Taldeko buletinean publikatuko du, erabakia hartu eta hurrengo hamabost egunetan gehienez ere. Erabakiarekin ados ez egotekotan, hamar egun natural egongo dira alegazioak aurkezteko, ebazpena publikatu den unetik hasita.

LAUGARREN KAPITULUA. LAGUNTZAK GAUZATZEA

1. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Dirulaguntza jasoko duten proiektuak aukeratzeko direnean eta erakunde onuradunei horren berri ematen zaienean hasiko da ordainketa prozesua. Horretarako, erakunde onuradunek berretsi egin beharko dute dirulaguntza jasotzeko beraien interesa.

Dirulaguntza esleitu izanaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hasi eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunak dirulaguntzari esanbidez uko egiten ez badio, dirulaguntza onartutzat hartuko da.

Ordainketa transferentzia bidez egingo da erakundearen izenean edo erakundearen lege ordezkariaren izenean dagoen kontu korrontean.



2. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

a. Emandako dirulaguntza onartzea

Dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hasi eta hamabost eguneko epean, erakunde onuradunak dirulaguntzari esanbidez uko egiten ez badio, dirulaguntza onartutzat hartuko da.

b. Epea betetzea

Dirulaguntza eskatzen den momentuko urte naturala edo ikasturtea izango da proiektua gauzatuko den epealdia. Epealdi hori kronograman zehaztuta, urte horietan egin beharko dira inbertsioak eta gastuak edo aurreikusitako gastu-konpromisoak.

d. Dirulaguntza justifikatzea

Deialdia argitaratu eta hurrengo urteko martxoan, erakunde onuradunak txosten bat aurkeztu beharko du proiektuaren helburuen betetze maila eta gastuen justifikazioa egiteko.

e. Jardueran aldaketak jakinaraztea

Dirulaguntza zer jardueratarako eman den, horiexetarako erabiltzea, eta ez beste ezertarako, nahiz eta Fagorrek onar ditzakeen jarduera horiek gauzatzerakoan sor litezkeen aldaketak, betiere, aldaketa horiek guztiz justifikatu badira.

f. Argitaratzen diren euskarrietan Fagorren aipamena

Publikoki zabaltzeko sortzen diren dokumentazioetan, karteletan, propagandan edo argitalpenetan, Fagor Taldearen logotipoa eta «Fagor Taldeak diruz lagundua» esaldia azaldu beharko dira. Erakunde onuradunek, gutxienez, euskara erabili beharko dute, nahitaez, diruz lagundutako jarduerak argitaratzean, iragartzean eta horiei buruzko publizitatea egitean.

3. EZ-BETETZEAK ETA DIRULAGUNTZAK BUELTATZEA

Justifikatutako arrazoirik gabe dirulaguntzaren eskaeran adierazitako helburuak ez badira betetzen, ez badira gastuak egiaztatzen edo oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, Fagor Taldeak dirulaguntza bueltatzea eskatu dezake.

Puntu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ez-betetzetzat hartuko dira honako egoera hauek:

- a) Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko epeak gainditzea, betiere Fagor Taldeak emandako luzapen edo aldaketa baimenik izan ezean.
- b) Proiektu batean izandako gastuek onetsitako aurrekontuko zenbatekoaren %25 baino handiagoa den beheranzko desbideratzea ekartzen badute, ez-betetzeko arrazoia izan daiteke eta dirulaguntza galtzea eta aurrez jasotako kopuruak itzuli beharra ekar ditzake, betiere erakundeak ez badu desbideratze hori behar bezala justifikatu Fagor Taldearen aurrean.
- d) Proiektua beste zerbaitetara desbideratzea edo ez betetzea oinarri hauetan ezarritako beste edozein betebeharrak.



Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira eta onuradunak argi eta garbi konpromisoak betetzeko jardun duela egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da, edo, hala badagokio, zati bat itzuliko da, eta egindako jarduera osoak guztizkoarekiko duen proportzioa kalkulatu da. Kasu horretan, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbatekoa benetan eta behar bezala justifikatuta, eman den dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, Fagor Taldeak justifikazioa egiaztatu eta onartu ondoren.

Itzulketa egin behar bada, honako hauek jakinaraziko zaizkio onuradunari: itzulketa prozeduraren hasiera, bete ez diren betebeharrak eta ukitutako dirulaguntzaren zenbatekoa. Prozeduraren ebazpenak dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzea erabakiko du. Itzulketa egiteko modua ere jakinaraziko zaio onuradunari. Itzulketa espediente hastera eta ebatzea –itzulketa osoa edo partziala– Lehendakarien Batzordeari dagokio.

BOSGARREN KAPITULUA. AZKEN XEDAPENAK

1. IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA

Diru ekarpena jasotzen duten erakundeak ordezkatzan dituzten pertsonen beren irudia eta izena erabiltzeko baimena idatziz eskatuko zaie, FAGOR SCOOP.eko politiken arabera, argazkiak atera aurretik.

2. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak FAGOR S.COOP.ek tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun den aldetik, Herrigintza lankidetzaren programako parte-hartzea kudeatzeko. Konkreteki, proiektuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko eta, proiektua hautatua izatekotan, harremanetan jartzeko erabiliko ditugu zure datuak. Datu pertsonalak bi aldeetan artean dagoen harreman juridikoaren arabera tratatuko dira, Datuak Babesteko Araudi Orokorren 6.1.b) artikuluekin bat eginez.

Datu pertsonal horiek legezko betebeharrak betetzeko jakinarazpen hori egin behar zaien entitate edo erakunde publikoei soilik jakinaraziko zaizkie, eta ez da nazioarteko transferentziarik egingo.

Programa behar bezala kudeatzeko, hau da, onuradunak hautatu eta diru ordainketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran soilik gordeko dira datu pertsonalak, eta, behar izango balitz, datuen tratamendutik eta honen helburuetatik erator litezkeen erantzukizun posibleen preskripzio epeetan zehar.

Kasu guztietan, parte-hartzaileek eskubidea dute beren datu pertsonaletarako sarbidea izateko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko, tratamenduari aurka egiteko edo baimena atzera botatzeko lopdi@fagor.eus helbide elektronikora edota San Andres Auzoa, z/g, 20500 Arrasate (Gipuzkoa) posta-helbidera eskaera bat bidaliz. Eskubide hauek behar bezala gauzatu ez direla uste bada, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da.

3. DIRULAGUNTZAK EMATEKO DERRIGORTASUNIK EZA

Fagor Taldeak dirulaguntzak eman gabe uzteko eskumena izango du baldin eta aurkeztutako proiektuek ez badute gutxieneko puntuazio bat lortzen.

ARGIBIDEAK



herrigintza@fagor.eus



<https://www.fagor.eus>